

En Lintzoain en la Casa Consistorial del Valle de Erro, siendo las 9,00 horas, del día 21 de agosto de 2020, se reunió el M. I. Ayuntamiento del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres./as Concejales/as, Don José María Eciolaza Ochoa, Don Juan Luis Fermin Gil García, Dña. Miren Nekane Nuño Iturri, y Don Joseba Martinez Rey, y Dña. Leire Remiro Esnoz, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garrada Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación Dña. Marisol Ezcurra Irure. Excusa su asistencia el concejal Don Ander Mendive Zalba

1.- APROBACION PROYECTO “PIZTU” (PROYECTO DE DESARROLLO E IMPLANTACION DE ENERGIAS RENOVABLES A NIVEL COMARCAL EN VALLE DE ERRO, BURGUETE Y RONCESVALLES) Y SOLICITUD DE AYUDAS AL PLAN DEL PIRINEO

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda, que de conformidad con lo hablado con el técnico de Cederna Sr. Gordejuela y a su vez con los representantes de los Ayuntamientos de Orreaga/Roncesvalles y Auritz/Buruguete, se ha preparado una memoria para solicitar conjuntamente la ayuda al Plan del Pirineo, sobre la provisión de energía eléctrica de autoconsumo a las instalaciones municipales pudiendo llegar, por qué no, a la autosuficiencia energética, al mismo tiempo que se provee de una capacidad extra de generación eléctrica. Se trataría de un proyecto que abarcaría el planteamiento de varias instalaciones pequeñas y medianas que puedan sumar un importante aporte de electricidad, distribuidos además por los distintos puntos de consumo que aparecen por la comarca. Es además, un proyecto absolutamente sostenible desde el punto de vista medioambiental, económico y social. Así mismo se informa que estas ayudas sirven principalmente para financiar la redacción de los proyectos, buscando posteriormente financiación para su ejecución. El coste de la redacción del proyecto está presupuestado en 16.500 euros más IVA.

Tras lo cual se da paso a la votación y se acuerda por unanimidad:

Aprobar presentarse en cooperación, a la “Convocatoria de subvenciones a entidades locales para ejecutar proyectos vinculados al Plan del Pirineo en el año 2020”, presentando conjuntamente con los Ayuntamientos de Auritz/Buruguete y Orreaga/Roncesvalles, el proyecto denominado “PIZTU”, nombrado como representante de las tres entidades al Ayuntamiento del Valle de Erro y su responsable el alcalde Sr. Enrique Garralda Erro.

2.- APOYO AL PROYECTO DE LA MANCOMUNIDAD AUÑAMENDI PARA SOLICITUD DE AYUDAS AL PLAN DEL PIRINEO.

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informando de la propuesta que desde la Mancomunidad de Auñamendi se va a presentar en la Ayudas al Plan del Pirineo, da la palabra a la concejala y a su vez Presidenta de la Mancomunidad Sra. Nuño, para que explique en que consiste el mismo. La

concejala Sra. Nuño informa que en un primer momento se pretendió presentar en cooperación con el Ayuntamiento de Erro, también con el de Burguete pero como ambos ya se habían juntado para presentar el proyecto mencionado en el punto 1, pues no era posible ya que una misma entidad no puede presentar más de un proyecto en cooperación. Finalmente hablaron con Abaurrea Alta y es con ella con quien van a presentar la solicitud de subvención en colaboración con la Asociación Aeiozu. El proyecto consiste entre otras actividades en formar a alumnos de la ESO de la escuela de Garralda como grupos de apoyo para quien tenga dificultades y necesite de ayuda. Tras su exposición, la corporación por unanimidad considera muy interesante el proyecto y muestra su apoyo al mismo.

Y sin más asuntos que tratar siendo las 10:00 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2020ko abuztuaren 21eko 9:00etan, Erroibarko Udala bildu zen lehen deialdian ohiko bilkura egiteko. Bertaratuak: Jose Maria Eciolaza Ochoa, Juan Luis Fermin Gil García, Miren Nekane Nuño Iturri, Joseba Martinez Rey eta Leire Remiro Esnoz, bilkura buru alkatea, Enrique Garralda Erro izan zen, eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Iurre. Ander Mendive Zalba zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.- “PIZTU” PROIEKTUAREN ONESPENA (ERROIBARREN, AURITZEN ETA ORREAGAN, ESKUALDE MAILAN, ENERGIA BERRIZTAGARRIAK GARATU ETA EZARTZEKO PROIEKTUA) ETA DIRU-LAGUNTZA ESKATZEA PIRINIOKO PLANARI

Garralda alkateak hartu du hitza eta esan du Cedernako teknikari Gordejuela jaunarekin eta, aldi berean, Orreagako eta Aurizko udaletako ordezkariekin hitz egindakoaren arabera, memoria bat prestatu dela Pirinioetako Planari batera laguntza eskatzeko. Haren bidez udal-instalazioak autokontsumorako energia elektriko hornitzea, eta, zergatik ez, autosufizientzia energetikora ere iristea lortu nahi da, aldi berean elektrizitate aparteko gaitasuna lortuz. Elektrizitate-ekarpen handia egin dezaketen hainbat instalazio txiki eta ertainen planteamendua barne hartuko lukeen proiektua izango litzateke, eskualdean agertzen diren kontsumo-puntuetan banatuta. Gainera, proiektu guztiz jasangarria da ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik. Era berean, jakinarazten da laguntza horiek batez ere proiektuen idazketa finantzatzeko balio dutela, eta, ondoren, gauzatzeko finantzaketa bilatzen dela. Proiektuaren idazketaren aurrekontua 16.500 euro gehi BEZa da.

Horren ondoren bozketa egin eta aho batez erabaki da:

"2020an Pirinioetako Planari lotutako proiektuak gauzatzeko tokiko erakundeei diru-laguntzak emateko deialdira" lankidetzan aurkeztea onartzea, Auritz eta

Orreagako udalekin batera "Piztu" izeneko proiektua aurkeztuz, eta hiru erakundeen ordezkari gisa Erroibarko Udala eta haren arduradun Enrique Garralda Erro jauna izendatuz.

2.- AUÑAMENDI MANKOMUNITATEAREN PROIEKTUAREKIN BAT EGITEA PIRINIOKO PLANAREN DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO

Garralda alkate jaunak hartu du hitza eta Auñamendiko Mankomunitateak Pirinioetako Planerako Laguntzetan aurkeztuko duen proposamenaren berri eman du, eta Nuño zinegotziari, Mankomunitateko buruari, eman dio hitza, plana zertan datzan azal dezan. Nuño zinegotzi andreak jakinarazi duenez, hasiera batean Erroibarko Udalarekin eta Aurizko Udalarekin lankidetzan aurkeztu nahi izan zen, baina biak 1. puntuan aipatutako proiektua aurkezteko elkartu zirenez, ezinezkoa zen, erakunde batek ezin baitu lankidetzaren proiektu bat baino gehiago aurkeztu. Azkenik Abaurregainako Udalarekin hitz egin zuten eta haren bidez aurkeztuko dute diru-laguntza eskaera Aieozu Elkartearekin batera. Proiektua, besteak beste, Garraldako eskolako DBHko ikasleak trebatzean datza, zailtasunak dituztenei eta laguntza behar dutenei laguntzeko. Azalpena entzun ondoren, udalbatzak, aho batez uste du proiektua oso interesgarria dela eta harekin bat egiten duela.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez bilkurari bukaera eman zaio 10:00etan, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.